

Anabel Ugalde Gorostiza

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1956)*

Aurkibidea

Biografia



San Andres auzoko Ibaialde auzoan jaioa. Bi senide dira. Umetan moja ikastetxean ibili zen. Historia ikasketak egin zituen. Irakasle jardun du urte askotan, besteak beste herriko ikastolan eta EHUn. Historiako emakume bertsolariei buruzko ikerketa egin zuen, eta horri buruz egin diogu elkarrizketa. Hitanoari buruz ere bai.

Zintak

ARR-194

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2023-05-23
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

ARR-195

- **Proiektua:** Arrasaten hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2023-05-23
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Bertso-txapelketaren egungo kontzeptua oso berria da

- **Erref:** ARR-194/007
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:05:28. **Bukatu:** 00:06:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakume eta gizonezko bertsolariak, plazan aldi berean agertu ziren arren, emakumeak gero plazatik desagertu egin ziren. Gaur egun ezagutzen dugun bertso-txapelketa kontzeptua, nahiko berria da. Aurretik, jendeak bertsotan egiten zuen.

2. Bertsotan egitea eta bertsolari izatea ezberdina da

- **Erref:** ARR-194/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:06:26. **Bukatu:** 00:07:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsotan egitea eta bertsolari izatea ezberdina da. XV. mendetik jendeak bertsotan egiten zuela dokumentatuta dago, baina ez bertsolari kontzeptu gisa.

3. Emakumeek beti egin dute bertsotan

- **Erref:** ARR-194/010
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:08:44. **Bukatu:** 00:09:57

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Emakumeek beti egin dute bertsotan. Plazan bertsotan egitea oso kontzeptu labainkorra dela azaltzen du. XIX. mendean emakumeak eta gizonezkoak plazan aurrez aurre bertsotan ibiltzen ziren baina gero emakumeen presentzia desagertu egin zen. Garai batean, plazetan baino beste espazio batzuetan egiten zen bertsotan. Txapelketaren kontzeptua oso berria da.

4. Eresiak, hiletetako bertsoak

- **Erref:** ARR-194/011
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:09:57. **Bukatu:** 00:13:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Bertsotan egitea kantatzearekin eta inprobisatzearekin lotzen bada, XV. mendeko dokumentu baten arabera (Esteban Garibaik jasotakoa), Sancha Ozaetaren bertsoa jasota dago, orduak "eresiak" deitzen zirenak. Milia Lasturrekoaren eresia ere jasotzen du Garibaik. Familia oneko familien eresiak jaso bazituen ere, familia guztietan egiten zen, baita enkarguz ere.

5. Eresien debekua; eresiak artelanetan irudikatuta

- **Erref:** ARR-194/012
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:13:38. **Bukatu:** 00:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeek ziren eresiak kantatzen zituztenak. Eresiak oso kritikoak eta dramatikoak izategatik debekatu ziren arren, kantatzen jarraitzen ziren. XIII. mendeko artelanetan eresiak irudikatuta agertzen dira.

6. Esteban Garibai arrasatearra

- **Erref:** ARR-194/014
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:16:09. **Bukatu:** 00:18:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Esteban Garibai, 1533an jaio eta 1599an hil zen. Etxean entzundako kontuak liburuetan jaso zituen, batez ere amonari kantatzen entzundakoak. Sancha Ozaeta eta Milia Lasturkoren eresiak, bandoen arteko liskarretan gertatutakoak kontatzen dituzten kantak.. jaso zituen.

7. "Profasadak" edo emakume bazter-endredatzaileak

- **Erref:** ARR-194/015
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:18:47. **Bukatu:** 00:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Bizkaiko Foru Zaharrean, "profasada" hitza azaltzen da irainak edo gaizki-esakak definitzeko. Foru berrian aldiz, profasada hitza bazter-endredatzaile bezala ulertzen da eta emakumearen irudiari lotuta dago. Emakume asko epaitu zituzten, herriko pertsona garrantzitsuen inguruko bertsoak atera eta haietaz barre egiten zutelako.

8. Profasaden epaiketak

- **Erref:** ARR-194/016
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:22:28. **Bukatu:** 00:23:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Profasadak analfabetoak ziren baina hizkuntzarekin jolasteko abilezia handia zuten. Ehungileak, jostunak, sukaldariak... izaten ziren eta haien izenak gaur egun ezagutzen diren, epaituak izan zirelako. Kartzelan egondakoak ere badaude.

9. Profasadak bertsoan ibiltzen ziren

- **Erref:** ARR-194/017
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:23:59. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Profasaden bertso batzuk iritsi dira gaur eguneraino, nahiz eta ez dauden ondo transkribatuta. Auzitara eramandako hainbat emakumeren izenak eta

urteak aipatzen ditu. Auzi bateko dokumentuetako batean, neska hauek bertsoak egiten zituztela eta hauek familiaren irudiarengan egiten zuten kalteaz hitz egiten da.

10. Garai batean hizkuntzaren asko jolasten zen

- **Erref:** ARR-194/019
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:27:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Emakumea beti ibili da bertsoan, kantuan, inprobisatzen, hitzekin jolastu du... Garai batean elebakarrak eta eskolarik gabekoak ziren, beste hizkera mota batzuk erabiltzen zituzten eta oso hizkera freskoa zuten.

11. Bertsopaperen sorrera

- **Erref:** ARR-194/021
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:28:17. **Bukatu:** 00:30:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsopaperen sorrera, Gabonekin lotuta dago. Jendeak kantak sortzen zituen, inprentara eraman eta gero elizan abesten ziren. Kinkileroek saltzen zituzten herriz-herri eta Europatik zabaldua zegoen fenomenoaren. Egileetako bat Bizenta Mogel izan zen baina beste asko anonimoak dira.

12. Bertsotan egitea ohikoa zen neska eta mutilen artean

- **Erref:** ARR-194/022
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:30:58. **Bukatu:** 00:31:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Garai batean oso ohikoa zen neskek zein mutilek bertsotan egitea. Jolas bat moduan zen, ondo pasatzekoa eta elkar zirikatzekoa.

13. Bertsopaperak kontsumo objektu bat bihurtu ziren

- **Erref:** ARR-194/023
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:31:42. **Bukatu:** 00:34:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Azoketan bertsopaperak agertzen hasi ziren, baita bertsolari handien artean ere. Segurako gizon bat Kubako gerratik itsu bueltatu eta lanik ezin zuenez egin, bere emaztearekin bertsopaperak sortu eta meza ostean nola kantatu eta paperak saltzen zituzten kontatzen du. Bertsopaperak kontsumo objektu bihurtu ziren Euskal Herrian.</p>

14. Bertsopaperak emakumeek ere idazten zituzten

- **Erref:** ARR-194/024
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:34:17. **Bukatu:** 00:37:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Bertsopaperak idazten emakumeak ere bazeuden. Segurako itsuaren eta Jean Etxepareren adibideak jartzen ditu. Emakumeak sinatutako bertsopaperak ere badaude, baina normalean gizonezkoak izaten ziren, emakumeei iraina egiteko.

15. Emakumea bertsotan aritzea guztiz ohikoa zen

- **Erref:** ARR-194/025
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:37:23. **Bukatu:** 00:39:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeek bertsotan sano egiten zuten eta ohikoa zen, ez zegoen gaizki ikusita. Desafioetan ere aritzen ziren. Desafio hauek umorean oinarritzen ziren gehienbat eta asko bertsopaperei esker heldu dira gaur egunera.

16. Lehenengo Lore Jokoak eta bertsolaritza

- **Erref:** ARR-194/027
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:39:19. **Bukatu:** 00:41:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak

Laburpena:

Lehenengo lore jokoak 1851an antolatu zituen Anton Abadiak Ipar Euskal Herrian. Bertsopaperen lehiaketako irabazleetako bat Uthurralt (Marieder) izan zen eta denak gizon-emakumeak elkarrekin aurkezten ziren, ez banatuta. Bertso onenak baloratzeko irizpideak Lore Jokoetan sortu ziren.

17. XX. mendeko emakume bertsolarien kontrako lehen aipamenak

- **Erref:** ARR-194/028
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:41:48. **Bukatu:** 00:45:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsokak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Bertsotan egiten zuten emakume asko zeuden arren, haien izenak ez dira mantendu. Bilintzek bertsotan bere pareko zuen Hondarribiko neska bat aipatzen du: Joxepa. Lore Jokoetan garaile irten ziren emakumeen izenak (Osorio, Etxebarri...) heldu dira gaur egunera, kronikak idazten zirelako. Kronika horietako batean "sexu ahuleko"ak irabazi zuela aipatzen da eta hor aldaketa bat ematen hasi zela uste du Anabelek.</p>

18. Rosario Artolaren bertsoak aldizkarietan

- **Erref:** ARR-194/030
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:45:13. **Bukatu:** 00:48:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsokak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa

Laburpena:

<p>Rosario Artolak aldizkarietan argitaratzen zituen bere bertsoak. Aldizkari hauek ez ziren bakarrik Euskal Herrian editatzen, baita diasporan ere. Rosariok gitarra ere jotzen zuen. Emakumeak askotan egoten ziren haien senarrekin batera kantatzen, gitarra jotzen, bertsopaperak saltzen...</p>

19. Señoritak eta neskameak formatzea zen sistemaren helburua

- **Erref:** ARR-194/032
- **Iraupena:** 0:05:16. **Hasi:** 00:49:38. **Bukatu:** 00:54:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » XIX. Mendea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

XIX. mendeko testuinguruko (karlistadak, industrializazioa, baserritik kalera lanera joatea...) balore politiko eta moralisten arabera, hezkuntza sistema

nazionala sortu zen, non mutilei eta neskei irakasgai ezberdinak irakasteaz gain, sexuaren arabera rolak erakusten zizkieten. Emakumeak etxeko-andre formal eta moralak izateko formatuak ziren, gehiegi hitz egingo ez zutenak. Señoritak (aberatsen artean) eta neskameak (pobreen artean) formatzea zen sistemaren helburua. Ez zegoen lekuri nesken artean elkartzea kantatzeko, bromak egiteko, bertsotan egiteko...

20. Irain berrien aroa: sardinerak, baserritarrak...

- **Erref:** ARR-194/033
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:54:54. **Bukatu:** 00:56:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeek formalak izan behar zutela adierazten zuten abestiak sortu ziren. "Desde Santurce a Bilbao" kantan, "sardinerak" hitza irain bezala erabiltzen da eta hauek ziren kantatzen ibiltzen ziren emakumeak. Baserritarrak ere mespretxagarri bihurtu ziren kaletarrentzat.

21. Bertsolarien fama txarra

- **Erref:** ARR-194/034
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:56:02. **Bukatu:** 00:57:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Eliteak bertsolariaren fama txarra zabaldu zuen: mozkor fama, arlotea, baserritarra... Baina bertsoek publikoa zuten, gizonak beraien espazioak bilatu zituzten (sagardotegietan adibidez) eta onartuagoak ziren emakumeak baino.

22. Joxepa Zubeldiaren bertsoak

- **Erref:** ARR-194/035
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:57:35. **Bukatu:** 01:02:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Joxepa Zubeldia Madrilera joan zen neskame bezala. Ezkondu eta seme-alabak izan ondoren, senarra gaixotu eta Hernanira itzuli ziren denak. Denda bat zabaldu zuen. Kantuak, poesiak eta bertsoak idatzi eta botatzen zituen normaltasun osoz. Gaur egun, garai hartan gertatutako baztanga epidemia baten berri daukagu, Joxeparen bertso batzuei esker. Hala ere, Joxeparen alabak eta bere lagunek, Joxeparen koaderno asko erre zituzten, garaiko

morala jarraitzen ez zutelako. Ezberdin hezitako garai berdineko bi emakumeren ikuspegiak dira.

23. Mundu tradizionalaren amaierako emakume bertsolariak

- **Erref:** ARR-194/036
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:02:37. **Bukatu:** 01:04:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Mundu tradizionalaren amaierako urteetan, bertsotan ibiltzen ziren emakume batzuen izenak geratu dira: Joxepa Antonia Aranberri (Xenpelarren iloba), Mikela eta Joxepa Inazi Elizegi, Mikela Inazia Gaztelu... Oso giro euskalduneko familiako emakumeak dira, batzuk bertsolarien familiakoak, tradizionalak...

24. Bertsoa, baserritarren kontua

- **Erref:** ARR-194/037
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:04:44. **Bukatu:** 01:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsolari gizonezko asko famatuak egin ziren, haien bertsoen bertsopaperak banatzen zirelako. Ez zegoen ohiturarik bertsoak jasotzeko eta gehienak galdu egin dira. Bertsoak jasotzen hasi zen lehena Antonio Zabala izan zen. Bertsoei ez zitzaien garrantzirik ematen, baserritarren kontua zelako

25. Bertso eskolei esker emakumeak oholtzara igo dira berriz

- **Erref:** ARR-194/038
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:06:35. **Bukatu:** 01:08:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

80. hamarkadatik aurrera eta bertso eskolen bidez, emakumearen presentzia handitu zen bertsolaritzan. Cristina Mardaras, Arantzazu Loidi... izan ziren lehenengo emakumeak eta kritikak ere jaso zituzten, nahiz eta berehala isildu ziren.

26. Emakumeen presentzia bertsolaritzan beti egon da

- **Erref:** ARR-194/039
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:08:47. **Bukatu:** 01:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Zorionez bertsolaritzan emakumeak normaltasunez ikusten dira gaur egun. Emakumeen historia bertsolaritzan ez da lineala izan baina beti hor egon da, batzuetan bistarago eta besteetan ezkutuago.

27. 1945-1960 garaiko emakume bertsolariak

- **Erref:** ARR-195/002
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:00:21. **Bukatu:** 00:02:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

1945-1960 garaiko bertsolari emakume batzuk aipatzen ditu. Lucia Goñi, Treku... giro oso euskaldunetako emakumeak ziren. Oso gutxitan agertzen ziren bertsotan jendaurrean. Baserri-giroan mugitzen ziren.

28. Maria Estibaliz de Sasiola idazle Debarra

- **Erref:** ARR-195/006
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:04:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Maria Estibaliz de Sasiola idazle Debarrari buruz. Poesia idazten zuen eta Larreako haurren idatzietan agertu ziren.

29. Euskara hiztun pertsona kultuak

- **Erref:** ARR-195/009
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:06:58. **Bukatu:** 00:07:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Kultuak eta jakintsuak beste batzuk direla pentsatzen dugu beti. Zergatik ez Euskal Herria? Giroa kultua zen, baina ez zaio garrantzirik eman.

30. Dokumentu ofizialak gaztelaniaz, baina pregoiak euskaraz

- **Erref:** ARR-195/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:07:57. **Bukatu:** 00:09:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskara nagusi bazen ere aspalditik, poliki-poliki kargudun pertsona bat izateko gaztelania jakitea derrigortzen hasi zen. Arrasaten, adibidez, 1409ko ordenantzak gaztelaniaz zeuden baina pregoiak euskaraz egin behar zirela jasota dago, herritarrek ulertu ahal izateko. Jende gehiena elebakarra zen eta oso gutxi ziren elebidunak.

31. Bizenta Mogel idazlea

- **Erref:** ARR-195/011
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:09:57. **Bukatu:** 00:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Bizenta Mogel idazlea. Bere familian denak idazleak ziren eta itzultzaile lanak ere egin zituen. Gabon kantak eta Fernando VII. aren aldeko bertsoak idatzi zituen.

32. Rosario Artola idazle

- **Erref:** ARR-195/013
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:11:13. **Bukatu:** 00:13:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Rosario Artola idazlea. Aldizkarietan argitaratzen zituen bere lanak. Gitarra jotzen zuen. Emakumeek musika-instrumenturik jotzen ez zutela pentsatu da. Maurizia.

33. Valentin Zubiarreren bertsolari emakumezkoen margolana

- **Erref:** ARR-195/015

- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:13:16. **Bukatu:** 00:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Valentin de Zubiaurrek margotutako bi emakume bertsolariren koadroa. Zubiaurretarrak madrildarrak ziren baina jatorriz berriztarrak. Margolana 1913an pintatu zuen eta Reina Sofia museoan dago ikusgai, "Versolaris" izenarekin.

34. Errepublika garaian, emakumeek politika egiteko idazten zuten

- **Erref:** ARR-195/019
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:20:09. **Bukatu:** 00:21:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Hauteskundeak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Emakume Abertzale Batzako kideek politikari buruz idazten zuten, ez literatura egiteko.

35. Hitanoaren transmisioa familian

- **Erref:** ARR-195/022
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:21:31. **Bukatu:** 00:23:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Aitagandik izan ezik, beste familiako kideengandik hika jaso du beti (ama, amona, neba, izebak... Familiako emakumezkoek beti egin diote noka. Lehengusu txikiekin ere beti hika egiten du.</p>

36. Gurasoak haien artean beti zuka

- **Erref:** ARR-195/023
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:23:40. **Bukatu:** 00:25:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gurasoek beraien artean beti egin dute zuka, nahiz eta familiako gainontzekoekin hika erabili. Gurasoek haien gurasoei, beti zuka. Berorika oso gutxitan entzun izan du, baina ezagutzen du gurasoei horrela egindakorik ere.

37. Eskola, erdalduntzeko bidea

- **Erref:** ARR-195/024
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:25:05. **Bukatu:** 00:27:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Mojetan ikasi zuen Anabelek eta amak kontatzen dio ez zuela hitzik ere egiten, ez zielako mojei ezer ulertzen. Auzoan, baserri giroarekin izan dute harreman gehiago eta eskola izan da erdalduntzeko bidea.

38. Hitanoz jarduteak hurbiltasuna ematen du

- **Erref:** ARR-195/025
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:27:22. **Bukatu:** 00:28:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen eta ikastolan lanean hasi zenean, Bedoñako biztanleekin hika egiten hasi zen. Hikak hurbiltasuna ematen dio. Zuka, distantzia bat mantentzeko erabili du. Ikasleei beti zuka egin die, baina gaur egun batzuekin hika egiten du.

39. Arrasateko egungo hitanoaren egoera

- **Erref:** ARR-195/026
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:28:42. **Bukatu:** 00:30:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Euskararen egoera ez da ona Arrasaten, eta hitanoarena ere ez. Mutilen artean hika gehiago entzuten, baina beraien artean egiten dute gehienbat. Neskei ez zaie egiten edo toka erabiltzen dute, noka beharrean. Orokorrean oso gutxi entzuten da hitanoa.

40. Emakumeek hitanoa eremu intimoetan erabiltzen zuten

- **Erref:** ARR-195/027
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:30:52. **Bukatu:** 00:34:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoa emakumeentzat fina ez denaren ohitura. Bere amak lagunekin beti egin du hika. Emakumeentzat trataera mota hau eremu intimoetan eman izan da askotan, baina gizonezkoentzat ez.

41. Hitanoa emakumeei ez transmititu izana

- **Erref:** ARR-195/030
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:37:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoa emakumeei ez transmititzea, "burgestze" prozesuaren ondorioetako bat da.

42. Hitanoaren kontrako iritziak

- **Erref:** ARR-195/031
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:37:33. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Baserri-jatorriko gurasoak dituzten pertsonak dira Arrasaten hitanoa gehien erabiltzen dutenak. Hitanoaren kontrako iritziak eta iruzkinak, zeharka askotan entzun ditu. Normalean, gurasoei hika egitea errespetu falta dela entzun du gehien.

43. Lagunekin zuka egiten du

- **Erref:** ARR-195/032
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:39:45. **Bukatu:** 00:43:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Gaur egun, hitanoz hitz egiten ikasteko interesa dago. Anabelek, hika norekin egiten duen azaltzen du: lankide eta ikasle batzuk, familia, seme-alabekin... Lagunekin, beti zuka egiten du.</p>

44. Hitanoa umeeekin eta bere buruarekin

- **Erref:** ARR-195/033
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:43:31. **Bukatu:** 00:45:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Etxeko umeeekin zuka egin du beti, baina biloba jaio zenean, noka atera zitzaion. Seme-alabekin transmisio-etena izan zuen baina orain hika egiten die. Animalekin eta bere buruarekin, to egiten du.

45. Hitanoaren transmisioaren etena

- **Erref:** ARR-195/035
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:48:02. **Bukatu:** 00:49:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Ume txikiei zuka egiten zaie normalean eta urte batzuetara hika egiten zaienean, hitanoaren transmisioaren etena eman da.

46. Hitanoa berreskuratzeko ekimenak

- **Erref:** ARR-195/036
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:49:19. **Bukatu:** 00:50:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Arrasaten, hitanoa berreskuratzeko ekimenak. Noka-tertuliak. Ahalduntzeko tresna bat da hitanoa.

47. Arrasateko berbak II

- **Erref:** ARR-195/042
- **Iraupena:** 0:05:35. **Hasi:** 00:53:49. **Bukatu:** 00:59:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Arrasateko berbak. Lekarixoa, irrintzi mota bat da; artalataikua, kantuan korroan dantzan egitea; Lubana (lubakia); Bizi-alargun, garai batean banatzen ziren emazteei deitzeko modua; mailukia (marrubia), kerizie (itzala).

48. Arrasateko esalmoldeak

- **Erref:** ARR-195/043
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:59:24. **Bukatu:** 01:00:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Arrasateko esamolde batzuk. "Asto fan, ta mando etorri", "Hor konpon Mari Anton, txakurrak buztana beria jon" amak esaten zuen etxean.

49. Arrasateko berbak III

- **Erref:** ARR-195/045
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 01:01:21. **Bukatu:** 01:02:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Arrasateko hitzak. "Atartea" deitzen diote atariari. Harresiko ateei "portala" deitzen diote, baina etxeko ateei, atartea.

50. Arrasateko Amandre Santa Ines-en gorputz momifikatua

- **Erref:** ARR-195/047
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 01:02:32. **Bukatu:** 01:06:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinismenak » Esaerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinismenak

Laburpena:

Umetan, amesgaiztoren bat zutenena, Arrasateko elizan dagoen Amandre Santa Ines momiaren letania kantatzen zieten. Aspaldi, bistan zegoen momia baina jendea kuttunak egiteko arropak eta gorputzaren zatiak kentzen hasi zen. Santuaren istorioa kontatzen du eta nola heldu zen Arrasatera momifikatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com